



## **GIPUZKOAKO INGURUMEN GUNEA 1-EN HASIERAKO FUNTZIONAMENDU FASEAREN IMMISIOAREN BALIOAK KONTROLATZEKO KONTRATU IREKI SINPLIFIKATUAREN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA.**

### **1. AURREKARIAK ETA JUSTIFIKAZIOA**

2019-2030 Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketako Plan Integral berriak (GHHKPO 2019-2030) –66/2019 Foru Arauak, martxoaren 20koak, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorra onesten duenak– VAL-2 ekintzan aurreikusten du Gipuzkoako Ingurumen Gunearen jarraipen azterketak egitea, zeinaren TMB jada probaldian baitago eta emisio fokuari eusten baitio. Orobat, Gipuzkoa 1 Ingurumen Guneko beste instalazio handia, Balorizazio Energetikoko Planta, aurreikusten da 2019ko urrian hasiko dela funtzionatzen.

Gipuzkoako Foru Aldundia, azpiegitura berriaren ingurumen jasangarritasuna eta osasun publikoaren irizpideak bermatu nahian azpiegitura berria abiarazteko, eta nahiz eta jakitun den Europako zuzentarauek ezarritako baldintzak betetzen direla, Gipuzkoako gizartearekin garden izaten jarraitu nahi du, eta, horretarako, Plantaren inguruan osasun publikoa ebaluatzeko azterketa bat egin nahi du.

Hori dela eta, plantaren eraikuntza fasearekin bat etorriz (2017-2019), abiarazi aurretik, azterketa epidemiologiko bat eskatu zen. hartara ebaluatzeko zein den planta funtzionatzen jarri aurreko egoera. Azterketa horretarako airearen kalitatearen ebaluaziorako zehaztapenak 2019ko irailean amaituko dira. Azterketa horrek balioko du balio basalak zehazteko gunetik gertu bizi diren pertsonen osasunaren ebaluazioa dagokionez. Azterketa horren aurretiko emaitzek balioko dute proiektu berri honetan eskuratzen diren balioak alderatzeko.

### **2. AGIRIAREN OBJEKTUA ETA LANEN HELBURUA**

Preskripzio teknikoaren agiri honen objektua da Gipuzkoa I Ingurumen Gunearen inguruko kalitate atmosferikoaren ebaluazioaren kontratazioa arautuko duten baldintza teknikoak zehaztea eta lanak deskribatzea eta definitzea, 2019ko urritik abendura. Gune horrek hartzen ditu Tratamendu Mekaniko Biologikoaren Instalazio bat (TMB) eta Balorizazio Energetikoko Planta bat.

Laginketa 2019ko urriatik 2020ko martxora luzatuko da.

Kontratuaren objektua da airearen kalitatearen ebaluazio bat egitea bi zonaldeetan. Zonalde bat plantaren emisioen eraginpean egongo dena (Donostiako Zubieta auzoa eta Lasarte eta Usurbil) eta kontroleko zonalde bat, balioko duena alderaketa egiteko eta lortzen diren emaitzen jarraipena egiteko etorkizunean. Bigarren zonaldeak, abian den azterketa epidemiologikoari jarraikiz, Ordizia eta Urretxu udalerriak hartuko dira. Helburua da ikustea ea Gipuzkoa I Ingurumen Guneko instalazioak (TMB planta eta balorizazio planta) martxan jartzeak ez duela eraginik kalitate atmosferikoaren



parametroetan 2019ko amaieran amaituko den azterketa epidemiologikoak ematen duen informazioarekiko. Horretarako, zonalde banaketa bera egiten da.

Ondorioz, kontratu berri honek harremana du aurrekoarekin lehen zatiari dagokionez: hots, airean dauden kutsatzaile atmosferikoen esposizioaren ebaluazioa (kutsatzailtzat jotzen dira dioxina-furanoak, trazu-elementuak eta PM2.5 partikulak).

Enpresa adjudikaziodunak azterketa epidemiologiko horren emaitzak egingo ditu behar beste alderaketa egiteko.

### **3. JARDUKETA EREMUA**

Jardueraren eremu geografikoa aurreko azterketan plantaren emisioen eraginpekotzat jo zen zonaldea da: hots, Donostiako Zubieta auzoa eta Lasarte eta Usurbil udallerriak. Orobat hartzen da aurreko azterketako kontrol zonalde bera: Ordizia eta Urretxu.

### **4. LANEN EDUKIA**

#### **4.1. Egingo diren lanen deskribapena**

Abian den azterketari dagokionez, helburua da aireko kutsatzaile atmosferikoekiko esposizioaren ebaluazio bat egitea, 2019ko urritik abendura. Airearen kalitatea ebaluatzeko xedez, eraginpeko zonaldeko eta kontrol zonaldeko hondoko ingurumen kutsaduraren balioak neurtuko dira (immisio mailak).

Zeregin nagusiak izango dira:

- a) Kutsatzaile hauek neurtzea kaptatzaileen bidez:
  - Dioxina-furanoak.
  - Trazu elementuak.
  - PM 2.5 partikulak.
- b) Esposizioaren azterketa eta ebaluazioa aire laginak erabiliz.
- c) Txostenak egitea.

#### **4.2. Metodologia**

##### **4.2.1. Airean dauden kutsatzaile atmosferikoen esposizioaren ebaluaziorako metodologia**

Lehiatzaileek lana egiteko metodologia definitu beharko dute: faseak, zereginak, gauzatze kronograma, metodoak eta emaitzak. Metodologiak informazio hau bilduko du gutxienez:

- a) Aireko kutsatzaileen zerrenda. Neurtuko dira, gutxienez, kutsatzaile hauek:
  - Dioxina-furanoak: 2,3,7,8-TCDD; 1,2,3,7,8-PeCDD; 1,2,3,4,7,8-HxCDD; 1,2,3,6,7,8-HxCDD; 1,2,3,7,8,9-HxCDD; 1,2,3,4,6,7,8-



- HpCDD; OCDD; 2,3,7,8-TCDF; 1,2,3,7,8-PeCDF; 2,3,4,7,8-PeCDF; 1,2,3,4,7,8-HxCDF; 1,2,3,6,7,8-HxCDF; 2,3,4,6,7,8-HxCDF; 1,2,3,7,8,9-HxCDF; 1,2,3,4,6,7,8-HpCDF; 1,2,3,4,7,8,9-HpCDF; OCDF; PCB-77; PCB-81; PCB-126; PCB-169; PCB-105; PCB-114; PCB-118; PCB-123; PCB-156; PCB-157; PCB-167 y PCB-189.
- Trazu elementuak: As, Cd, Hg, Mn, Ni eta Pb.
  - PM 2.5 partikulak.
- b) Kutsatzaile atmosferikoak neurtzeko erabili diren kaptatzaile kopurua eta ezaugarriak. Eskatzen da gutxienez bi kaptatzaile jartzea eraginpeko eremuan, eta beste bi kontrol eremuan.
- c) Kaptatzaile horien kokapena eraginpeko eremuan eta kontroleko eremuan.
- d) Laginak hartzeko aldia. Laginketa planean kaptatzaile bidezko laginen egutegia/ordutegia adierazi eta arrazoitu beharko da.
- e) Datuen analisirako behar diren pakete estatistikoak.
- f) Esposizioaren ebaluazioa emaitza estatistikoetatik abiatuta.

#### 4.3. Mugarriak eta ekarri beharreko dokumentazioa

Esleipendunak ekarri beharreko dokumentazioa agirian azaldutako txostenek osatuko dute:

- a) Aurretiko txostena. 2019ko ordainketaren aurretik, 2019ko amaieran aurkeztuko da, eta lanen planifikazioa (laginketa plana...) eta behin-behineko emaitzak aurkeztuko dira, ordura arte egindako neurketak oinarri hartuta. Egindako neurketen emaitzak bildu beharko ditu, eta jasotze dauden emaitzen zerrenda osoa ere bai. Orobat, aurretiko azterketa bat jasoko da, bildutako emaitzak oinarri hartuta.
- b) Amaierako txostena. 2020ko irailaren amaieran emango da, azken ordainketaren aurretik, eta data horretan dauden emaitza guztien informazioak bilduko dira, aintza hartuta ikerketan egindako aire kalitatearen parametroak zehazteko behar den denbora. Orobat bilduko ditu planifikazioa, laginketa plana eta lortutako emaitzen azterketa konparatibo bat 2017-2019ko azterketa epidemiologikoarekiko. Azterketa horretatik ondorioak aterako dira. Gutxienez, parametro bakoitzean azaldu beharko da zein alde atzematen den bi azterketen artean, eta estatistikoko esanguratsuak diren edo ez. Alderaketa horrekin batera iruzkin epidemiologikoak aurkeztuko dira, ikusten diren aldeak bide horretatik balioetsita. Txostenak orobat bilduko ditu, eranskinetan, egindako neurketa guztiak.

Lanak gauzatzean gorabeherak edo arazoak aurreikusi edo atzematen badira, ahalik eta azkarren jakinaraziko dira. Orobat, urteko kudeaketa txostenetan jasoko dira. Bertan, arrazoiak eta proposamen zuzentzaile eta aurretizkoak xehetasunez deskribatuko dira.

Amaierako txostena euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztuko da, paperean eta Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak erabiltzen duen softwarearekin bateragarri den euskarri



informatikoan. Paperean aurkeztu beharreko dokumentazioaren kasuan, bi kopia aurkeztuko dira, paper berrerabilian orriaren bi aldeetatik inprimatuta, behar bezala koadernatuta eta DIN A4 formatuan.

#### **4.4. Lantaldea**

##### **4.4.1. Langileak**

Agiri honetan definitzen lana egiteko, adjudikaziodunak jartzen duen lantaldea azterketak egiteko nahikoa titulazioa duten pertsonak osatuko dute, lanak egiteko nahikoa esperientzia dutenak.

Eskatzen da gutxienez ikertzaileetako bat lizentziatua izatea osasunaren eta ingurumenaren zientzien adar batean.

##### **4.4.2. Baliabide materialak**

Bai azterketa gastuak, bai bitarteko osagarriak esleipendunaren kontura izango dira, eskainitako prezio barruan daudela ulertzen baita. Era berean, adituen joan-etorriak ziurtatuko ditu esleipendunak, eta bitartekoak jarriko ditu horien esku, lantaldearen errendimendua ahalik eta onena izan dadin.

Esleipendunaren kontura izango dira langileen joan-etorriengatik sortutako gastu mota guztiak (bidaiak, dietak eta abar), horiek eskainitako prezioaren barruan daudela ulertzen baita.

#### **5. LANEN IRAUPENA**

Agiri honek arautzen dituen lanen iraupena 12 hilabete izango da, barne direlarik laginketa aldia –2019ko abuztuaren 15tik 2020ko martxoaren 31ra–, eta laginen azterketarako, emaitzarako eta txostena idazteko epea. Azken hau gehienez 2020ko irailaren 20ra arte luzatuko da.

#### **6. KONFIDENTZIALTASUNA ETA LANEN JABETZA**

Agiri hau oinarri hartuta lanaren esleipendunak egingo dituen azterlan eta dokumentu guztiak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko Ingurumen Zuzendaritzaren jabetzakoak izango dira, eta osorik edo zatika erreproduzitu eta zabaldu ahal izango ditu, egoki irizten duen moduan, esleipendunak horren aurka egile eskubiderik edo bestelakorik alegatzeko aukerarik izan gabe.

Adjudikaziodunak, eta bertako langileek, ezin izango dituzte kopiatu edo zabaldu baldintza agiri honen arabera egindako lan eta dokumentuak, ez emaitzak, ez edukia, ez osorik ez zatika, zuzenean edo laburtuta, ez azterketak irauten duen bitartean, ez behin



amaituta, salbu eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak berariazko baimena ematen badu. Nolanahi ere, esleipenduna izango da betebeharrak hori betetzen ez bada sortzen diren kalte-ordainen erantzulea.

Enpresa adjudikaziodunak bere kasa aurkeztu ahal izango ditu kongresu zientifikoetan edota aldizkari zientifikoetan azterketarekin zerikusia duten argitalpenak. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiari argitalpen bakoitzaren kopia bat aurkeztu beharko dio, hark berrikus dezan.

## **7. ESLEIPENDUNAREN ARDURA.**

Kontratuaren esleipendunak aurkeztu duen lantaldeko langileekin egingo ditu preskripzio teknikoaren agiri honen xede diren lanak.

Soilik esleipendunak izango du kalkulu eta xehetasunen zehaztasunaren eta egindako lanetan egon litezkeen akats eta gabezia guztien ardura tekniko eta juridikoa administrazioaren eta hirugarrenen aurrean.

## **8. LANAREN ZUZENDARITZA TEKNIKOA**

Lanaren zuzendaritza teknikoak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko langileen esku geldituko da. Zuzendaritzaren zereginak izango dira:

- Lanak egiteko beharrezkoak diren bitartekoak eta antolakuntza eskatzea.
- Behar diren jarraipen bilerak deitu.
- Ezaugarri Teknikoen Agiria eta kontratuan edo xedapen ofizialetan ezarritako gainerako baldintzak interpretatzea.
- Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak lanaren xedearekin lotuta zehaztu ditzakeen irizpideak sartzeko eskatzea.
- Lanak egiteko sartu beharrekoak izan daitezkeen aldaketak programatzea. Horretarako, Zuzendaritzak berariazko eskumena dauka gauzatzen ari den edo gauzatzeko dagoen lan programa aldatzeko, betiere kasu bakoitzaren inguruabarrak eta lortzen joango diren emaitzak kontuan hartuta, baldin eta amaierako aurrekontua aldatzen ez bada.
- Esleipendunak aurkeztutako dokumentazio partziala eta amaierakoa aztertzea eta, behin betiko hartu aurretik, egoki irizten dituen zuzenketak eta aldaketak egitea testuetan, tauletan eta grafikoetan.
- Egindako lanaren ziurtagiriak eta likidazioak egitea, adostu diren exekuzio eta ordainketa epeen arabera, baldin eta entregatutako lanak, Zuzendaritzaren iritziz, agiri honen xedeari dagozkion baldintzak betetzen baditu.

## **9. ADMINISTRAZIOARI LAGUNTZEA**



Esleipendunak, kostu gehigarririk gabe, lanaren xedea behar bezala betetzeko egoki irizten diren zerbitzu profesionalak emango dizkio Administrazioari, besteak beste, erakundeetako ordezkariari, hedabideei eta herritarrei oro har azalpenak eta informazioa emateko bileretara joatea, eta Zuzendaritza Teknikoak beharrezkotzat jotzen dituen jarraipeneko bileretara joatea, hark zehaztutako lekura.

Betebehar hori indarrean egongo da lanak amaitu eta urtebete igaro arte.

## **10. ADMINISTRAZIOAK AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA**

Nahiz eta esleipendunak beste iturri batzuetatik ere lor dezakeen dokumentazioa, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak esleipendunaren esku jarriko du Ingurumen Zuzendaritzan lan horren xedearekin lotuta dagoen dokumentazio guztia.

Gainera, erraztuko ditu esleipendunak hirugarrenekin egin beharreko gestioak, hori beharrezkoa balitz. Esleipendunak dokumentuen kopiak beharko balitu, horren gastua esleipendunaren kontura izango da.

Donostian, 2019ko ekainaren 11n

Ángel Mª Gundín Pérez  
Ingurumen Teknikaria

**INGURUMENENKO ZUZENDARI NAGUSIA**